

Basamortu beroak eta hotzak

Norbait basamortuari buruz hizketan entzuten dugunean, berehala dator gure burura irudi bera: hareazko dunez osatutako lur-eremu zabala, oso beroa eta oso lehorra. Hala ere, basamortu beroak eta hotzak daude, planetan kokatuta dauden tokiaren arabera.

Kontinenteen azaleraren ehuneko 17 basamortua da. Azalera horren zati berdintsua hartzen dute bai basamortu beroek bai hotzek.

Nolakoak dira basamortu beroak?



Basamortu beroenak Lurraren ekuatoretik hurbilen daudenak

dira. Basamortu beroetan, oso euri gutxi egiten du; batzuetan ezer ere ez. Horietan, euria berrogeita hamar urtean behin bakarrik egiten du. Pentsa zein bitxia den euria halako basamortuetan. Ingurune horiek, gainera, haize lehorren eragina jasaten dute. Eguraldia beroa baldin bada, lurrean egon litekeen ur gutxia azkar batean lurruntzen da eta areagotu egiten da lurreko lehortasuna. Horregatik dira hain gutxi halako basamortuetan bizi daitezkeen landareak. Basamortu bero arroksatuak eta hareazko basamortu beroak daude. Hareazkoetan, haizeak harea ale txikiak pilatzen ditu, eta dunak sortu. Duna horien kokagune eta norabidea basamortuko haize nagusiak finkatzen du. Sarritan, haizeak hareazko ekaitz ikaragarriak sortzen ditu. Egunetan iraun dezakete horrelako ekaitzek.

Zer temperatura dago basamortu hotzetan?

Basamortu hotzak Ozeano Artikoaren inguruan eta mendikate garaietan daude, Himalaian, Alpeetan eta Andeeetan, adibidez. Basamortu hotzetan ere euri gutxi egiten du. Baina basamortu hotzaren bereizgarri nabarmenena egiten duen hotz handia da, temperatura ez baita igotzen zero gradutik.

Lurralde artikoetako basamortu hotzek *tundra* izena dute. *Tundrako* zorua izoztuta dago beti. Udan soilik, lurrazala bigundu egiten da eta garai horretan espezie ugari landaredia azaltzen da. Landaredi horrek oso ondo eusten dio hotzari. Hori horrela izanik, basamortu hotzetako zenbait tokitan ez dago landaredirik, erabat mortuak dira: izotz-geruza lodi batek estalitako eremu glaziarak dira.



1. Nondik hurbil daude basamortu beroenak?

- ☐ Eguzkitik.
- ☐ Ekuatoretik.
- ☐ Tropikotik.

• Nolakoak izan litezke basamortu beroak?

- ☐ Harizkoak nahiz izotzezkoak.
- ☐ Hareazkoak nahiz haizetsuak.
- ☐ Hareazkoak nahiz arroksatuak.

2. Basamortu hotzetan,
non ez dago landarerik?

- ☐ Inon ere ez.
☐ Eremu glaziarretan.
☐ Tundran.

• Zer dira *tundrak*?

- ☐ Lurralde artikoetako basamortuak.
☐ Mendikate garaietako basamortuak.
☐ Basamortu hotzetako izotz-geruzak.

3 Lotu, gezi bidez, antonimoak direnak.

- | | |
|-----------|-----------|
| lehorra • | • baxua |
| zabala • | • mehea |
| bitxia • | • estua |
| garaia • | • urria |
| ugaria • | • hezea |
| mortua • | • arrunta |
| lodia • | • bizia |



4 Deskribatu basamortu beroa, testuan oinarrituta.

BASAMORTU BEROA:

5 Berridatzi esaldiak, adibidean bezala.

Hormako termometroa nik **erosi** nuen **termometroa** da.

Hormako termometroa nik **erosi** **nuena** da.

Horman dagoen termometroa nik **erositakoa** da.

Kanpineko ordenagailu bakarra nik ekarri dudan ordenagailua da.

Bertsorik onena zuk bota zenuen bertsoa izan zen.
